

4/2021 EBAZPENA, ekainaren 25ekoa

RESOLUCIÓN 4/2021, de 5 de julio

BATZORDEBURUA: María Barrena Ezcurra.

PRESIDENTA: María Barrena Ezcurra.

KIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea  
Laraudogoitia.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea  
Laraudogoitia.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue.

SECRETARIO: Juan Carlos Gonzalez Olea.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak, lehen aipatutako kideek osatuak, ebazpen hau eman du Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 22ko 1/2021 zenbakidun ebazpenari buruz

jaunak aurkeztutako eskabidearen aurrean. EBAZPEN horren bidez, baimena eman zen informazioa eskuratzeko, Batzorde honen irailaren 25eko 6/2020 zenbakidun Ebazpenean ezarritakoarekin bat etorriz. Maria Barrena Ezcurra andreak jardun du hizlari, eta Batzordearen iritzia adierazi du:

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la solicitud presentada por

con relación a la resolución del Director General de Promoción de la Autonomía Personal nº 1/2021, de 22 de enero, por la que se autorizó el acceso de acuerdo a lo previsto en la Resolución nº 6/2020, de 25 de septiembre, de esta Comisión. Actúa como ponente Doña María Barrena Ezcurra, quien expresa el parecer de la Comisión:

## EGITATEZKO AURREKARIAK

## ANTECEDENTES DE HECHO

LEHENA. jaunak erreklamazioa aurkeztu zuen 2020ko ekainaren 29an Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzorde honetan, Pertsonen Autonomia Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko ekainaren 16ko ebazpenaren aurka. Ebazpen horrek honako hau ebatzi zuen:

*“Lehena. - jaunari baimena ematea eskatutako informazioa eskuratu ahal izateko.*

*Bigarrena. - Eskatzen den informazioa ebazpen honen I. eranskinean dago.*

PRIMERO. El 29 de junio de 2020 Don formuló reclamación ante esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia contra resolución de la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal de 16 de junio de 2020 que resolvió:

*“Primero. - Autorizar a Don para poder acceder a la información solicitada.*

*Segundo. - La información cuyo acceso se autoriza se proporciona en el Anexo I a esta resolución.*



I. eranskinak, berriz, honako hau dio hitzez hitz:

*Erabiltzaileen eta haien familien intimitaterako eskubidea zaintzeko, eta egoitzak ez estigmatizatzeko, sarearen datu orokorrak ematen dira, anonimizatuta”.*

**BIGARRENA.** -Erreklamazioa partzialki baietsi zuen Batzorde honen irailaren 25eko 6/2020 Ebazpenak, honela:

*“Foru titulartasuneko egoitzei buruzko informazioari dagokionez, errekurtsio-egileak eskubidea du informazio hori eskatutako banakapenekin emateko.*

*Foru titulartasunekoak ez diren egoitzei buruzko informazioari dagokionez, gardentasunaren gaineko araudian ezarritako entzunaldi-izapiderik eza zuzentzea. Ondorioz, honako ebazpen hau jakinarazten zaionean, Gizarte Ekintza Sailak berriro ekin beharko dio prozedurari, eta entzunaldi-izapidea eman beharko die, foru-titulartasunekoak ez diren egoitzei egindako eskaerari dagokionez. Izapide hori bete ondoren, eta informazio-eskaera eta egin daitezkeen alegazioak kontuan hartuta, eskatutako informazioari buruz ebatzi beharko da”.*

**HIRUGARRENA.** – Ebazpena  
jaunari jakinarazi zitzaion 2020ko irailaren 29an. Halaber, Gizarte Ekintza Saileko Pertsonen Autonomia Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari eta Ahaldun Nagusiari Laguntzeko Unitateko Gobernu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi zitzaien.

**LAUGARRENA.** –2021eko otsailaren 26an, jaunak idazki bat aurkeztu zuen Batzorde honetan, honako hau zioena: "Foru Aldundiak, bigarrenez, eskaera berarekin

*El contenido del Anexo I, por su parte, indica literalmente:*

*Para preservar el derecho a la intimidad tanto de las personas usuarias como de sus familias, así como para no estigmatizar a las residencias, se aportan datos generales de la red, anonimizados”,*

**SEGUNDO.** La reclamación fue parcialmente estimada por Resolución de esta Comisión 6/2020, de 25 de septiembre, del siguiente tenor:

*“En cuanto a la información relativa a las residencias de titularidad foral, reconocer el derecho del recurrente a que la misma le sea entregada con los desgloses solicitados.*

*Respecto a aquella información relativa a residencias que no son de titularidad foral, subsanar la ausencia del trámite de audiencia establecido por la normativa de transparencia. En consecuencia, y una vez le sea comunicada esta resolución, el Departamento de Acción Social, deberá retomar el procedimiento y conceder trámite de audiencia en relación con la solicitud causada a aquellas residencias que no sean de titularidad foral. Una vez cumplimentado dicho trámite, y teniendo en cuenta tanto la solicitud de información como las alegaciones que pudieran formularse deberá resolver sobre la información solicitada”.*

**TERCERO.** – La Resolución fue notificada a Don el 29 de septiembre de 2020; así mismo se notificó a la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal del departamento de Acción social y a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia de la Unidad de Apoyo al Diputado General.

**CUARTO.** – Con fecha 26 de febrero de 2021 Don presentó ante esta Comisión escrito en el que manifestaba que “la Diputación Foral, por segunda vez en



lotuta, adierazi zuen informazioa eskuratzeko modua eman zuela, baina ez zuela eman. Hala, gainera, ez du betetzen Erreklamazio Batzordeak 2020ko irailaren 25ean emandako ebazpen bat".

relación con la misma solicitud, afirma que concede el acceso y no lo hace. De esa forma incumple, además, una resolución de la Comisión de Reclamaciones emitida el 25 de septiembre de 2020".

Errekurtsogileak adierazi du 2021eko urtarrilaren 7an, Aldundiaren jarduerarik ezaren aurrean, nahitaezko erreklamazioa aurkeztu zuela Administrazioaren jarduerarik ezagatiko auzi-errekurtsuaren aurretik, eta 2021eko otsailaren 1ean urtarrilaren 22ko ebazpena jakinarazi zitzaiola. Ebazpen hori oker egotzi zitzaion Foru Aldundiari, Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusiak eman baitzuen, honela:

Indica el recurrente que el 7 de enero de 2021, ante la inactividad de la Diputación, presentó la preceptiva reclamación previa al recurso contencioso por inactividad de la Administración y que el 1 de febrero de 2021 le fue notificada resolución de 22 de enero, que erróneamente atribuye a la Diputación Foral ya que fue emitida por el Sr. Director General de Promoción de la Autonomía Personal, del siguiente tenor:

“Lehena.- jaunari baimena ematea, eskatutako informazioa eskuratu ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen irailaren 25eko 6/2020 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

Primero.- Autorizar, de acuerdo a lo previsto en la resolución 6/2020, de 25 de septiembre, de la Comisión de Reclamaciones en materia de transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, a para poder acceder a la información solicitada.

Bigarrena.- "COVID-19 pandemiaren garaian egoitza-izaerako gizarte-zerbitzuetako zentroetan gertatutakoari buruzko analisi-txostenean" ematen da informazio hori, erreklamazio honen eranskinean.

Segundo.- La información cuyo acceso se autoriza se proporciona en el "Informe de análisis sobre lo sucedido en los centros de servicios sociales de carácter residencial durante la pandemia del COVID-19" anexo a esta reclamación.

Txosten ofizial hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusietan aurkeztu da, eta Ganbera osatzen duten ordezkari politikoen esku utzi da.

Este informe, de carácter oficial, ha sido presentado en las Juntas Generales del Territorio Histórico de Bizkaia y puesto a disposición de los representantes políticos que integran la Cámara.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraziko zaio, eta Gobernu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Orokorrari berri eman ere bai.

Tercero.- Notificar la presente resolución a la persona interesada, comunicando la misma a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa aurkez daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordean, hilabete bateko (1) epean, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24.5. artikuluan ezarritakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsu bat ere jar daiteke bi (2) hilabeteko epean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren

Cuarto.- Contra la presente resolución podrá interponerse reclamación ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes con arreglo a lo establecido en el artículo 24.5 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses ante la Sala de lo Contencioso-



*Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi kasuetan jaso eta hurrengo egunetik hasita”.*

*Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en ambos casos a partir del día siguiente a su recepción”.*

jaunak adierazi du txostenean aipatzen den denbora 2020ko martxotik 2020ko ekainaren 30era artekoa dela, bere eskaera 2020ko martxoaren 1etik apirilaren 30era bitarteko aldiari buruzkoa baitzen, eta hildako erabiltzaileen banakapena osasun-arloaren arabera eskaintzen dela, baina ez egoitzen arabera, hori eskatzen baitzuen. Gainera, adierazi du ebazpenean ez dela argudiatzen zergatik ez diren ematen eskatutako datuak.

El señala que el ámbito temporal a que se refiere el informe es desde marzo hasta el 30 de junio de 2020, cuando su solicitud se refería al periodo comprendido entre el 1 de marzo y el 30 de abril de 2020, y que se ofrece un desglose de usuarios fallecidos por área de salud pero no por centros residenciales, que era lo que solicitaba. Señala además que en la resolución no se argumenta el motivo por el que no se facilitan los datos solicitados

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren eta Batzorde honen 2020ko irailaren 25eko ebazpenaren aurka informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arrazoirik gabe kaltetu dela uste du.

Considera que se ha producido un menoscabo injustificado de su derecho a acceder a información pública en contra de la jurisprudencia del Tribunal Supremo y de la resolución de esta Comisión de 25 de septiembre de 2020.

Eta Batzordeari eskatzen dio, erreklamazioari erantzunez, eskatutako informazioa emateko betebeharra bete dezala, berariaz adieraziz datuak eskatutako epera mugatu behar direla eta eskatutako banakapenarekin.

Y solicita de la Comisión que, atendiendo a la reclamación, inste el cumplimiento de la obligación de facilitar la información solicitada, indicando expresamente que los datos deben ceñirse al período temporal solicitado y con el desglose solicitado.

**BOSGARRENA.-** Erreklamatzailleak planteatutako gaii buruzko txostena eskatu zion Batzorde honek Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari, eta txosten hori 2021eko martxoaren 10ean eman zen.

**QUINTO.** - Esta Comisión solicitó a la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal informe relativo a las cuestiones planteadas por el reclamante, informe que fue evacuado el 10 de marzo de 2021.

Txosten horretan zehazten da zuzendaritza horrek bere gain hartu behar izan duela pandemiaren ondoriozko ezohiko kudeaketaren zati handi bat, mendekotasuna eta desgaitasuna dutenentzako zerbitzu eta prestazioen ohiko kudeaketarekin bat eginda, osasun krisi honetan ahulenak diren taldeei dagokienez.

En el mismo se detalla cómo dicha Dirección ha debido asumir gran parte de la gestión extraordinaria derivada de la pandemia, que ha venido a sumarse a la gestión ordinaria de servicios y prestaciones para personas en situación de dependencia y discapacidad, los colectivos más vulnerables en esta crisis sanitaria



Gaineratu du pandemiak egoitzetan duen eraginari buruzko datuak hainbat bidetatik jakinarazten zaizkiela herritarrei, Gizarte Gaietarako eta Agenda 2030erako Ministerioari, Bizkaiko Probintzia Fiskaltzari eta Batzar Nagusietako talde politikoei, eta horrek guztiak egoitza-zentroek egoitza elektronikoaren bidez bidalitako datuen eskaera bakoitza etengabe eta hitzez hitz ustiatzea eskatzen duela.

Añade que los datos sobre la incidencia de la pandemia en centros residenciales son comunicados por distintas vías a la ciudadanía, al Ministerio de Asuntos Sociales y Agenda 2030, a la Fiscalía Provincial de Bizkaia y a los grupos políticos en Juntas Generales, todo lo cual requiere la explotación continuada y ajustada al literal de cada petición de los datos remitidos por los centros residenciales a través de sede electrónica.

Amaitzeko, honako hau dio: '  
*jaunak jarritako bigarren erreklamazio horri erantzuteko, datuak tratatzeko eskaera egin da. Emaizako txostena interesdunaren eta Batzordearen esku jarriko da, txostena egin bezain laster*".

Y finaliza indicando: "*Para dar respuesta a esta segunda reclamación interpuesta por D. , se ha cursado la correspondiente petición de tratamiento de datos. El informe resultante será puesto a disposición del interesado y de la Comisión tan pronto esté elaborado*".

**SEIGARRENA.-** Horrela, aipatutako zuzendaritzak beste ebazpen bat eman zuen 2021eko apirilaren 29an. Honako hau da:

**SEXTO.-** Y así, la citada Dirección dictó nueva resolución el 29 de abril de 2021 del siguiente tenor:

**"Lehenengoa.-** Baimena ematea jaunari eskatutako informazioa eskuratzeko.

**"Primero.-** Autorizar a para poder acceder a la información solicitada.

**Bigarrena.-**Baimendu den informazioa, ebazpen honen I. eranskinean jasotakoa, bat dator mendekotasuna dutenentzako Bizkaiko egoitza-zentroek EGOITZA elektronikoaren bidez emandako datuekin.

**Segundo.-** La información cuyo acceso se autoriza, recogida en el Anexo I a esta resolución, se corresponde con los datos reportados por los centros residenciales para personas dependientes de Bizkaia mediante SEDE electrónica.

**Hirugarrena.** Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta beronen berri ematea Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari.

**Tercero.-** Notificar la presente resolución a la persona interesada, comunicando la misma a la Dirección General de buen Gobierno y Transparencia.

**Laugarrena.-** Ebazpen honen aurka erreklamazioa jar daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren

**Cuarto.-** Contra la presente resolución podrá interponerse reclamación ante la Comisión de



Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordean, ebazpena jaso eta biharamunaz geroko hilabeteko (1) epearen barruan, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24.5. artikuluan xedatzen denaren arabera. Hala ere, aurreko guztia ez da eragozpen izango interesatuak bere eskubideak defendatzeko egoki ikusten duen beste edozein ekintza edo errekurso aurkezteko”.

Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes con arreglo a lo establecido en el artículo 24.5 de la Norma Foral 1/2016, de 17de febrero, o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en ambos casos a partir del día siguiente a su recepción.”

**ZAZPIGARRENA.-** Aurrekoa ikusita, Batzorde honek informatutakoaren berri eman zion jaunari, eta hamabost egun balioduneko epea eman zion alegazioak egiteko eta, hala badagokio, interesgarritzat jotzen duen froga aurkezteko. Jakinarazpena 2021eko maiatzaren 11n egin zen eta egunera arte ez da inolako alegaziorik jaso.

**SÉPTIMO.-** Visto lo anterior esta Comisión dio traslado de lo informado al habilitando un plazo de quince días hábiles para realizar las alegaciones y, en su caso, aportar la prueba que considerara de interés. La notificación fue practicada el 11 de mayo de 2021 sin que al día de la fecha se haya recibido alegación alguna.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**LEHENENGOA.-** Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikulua bidez sortu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea.

**PRIMERO.** - La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

Foru Arau horren 29.1.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2. artikuluaekin lotuta, Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-organismo autonomoetako, foruko enpresa-erakunde publikoetako, foruko merkataritza-sozietateetako, foru-fundazioetako, foru-partzuergoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ezesten denean aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.



Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza eta funtzionamendu araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: “a) *Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea isilbidez zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*”

**BIGARRENA.**– Erreklamazio hau Gizarte Ekintza Saileko Pertsonen Autonomia Sustatzeko zuzendari nagusiak 2021eko urtarrilaren 22an emandako ebazpenaren aurka egin da. Ebazpen horren bidez,

jaunari baimena eman zitzaion eskatutako informazioa eskuratzeko, Batzorde honen irailaren 25eko 6/2020 Ebazpenean aurreikusitakoaren arabera. Hona hemen ebazpena:

*“COVID-19aren pandemiaren garaian egoitza-izaerako gizarte-zerbitzuetako zentroetan gertatutakoari buruzko analisi-txostenean” ematen da informazio hori, ebazpen honen eranskinean”.*

Txostena hogeita hamabi orrialdeko dokumentua da, eta erreklamaziogilearen arabera, ez du eskatutako informazioa.

**HIRUGARRENA.**– Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko martxoaren 8ko txostenean, batzorde honek eskatutakoa kontuan hartuta, zehazten da zuzendaritza horrek bere gain hartu behar izan duela pandemiaren ondoriozko ezohiko kudeaketaren zati handi bat, mendekotasuna eta desgaitasuna dutenentzako zerbitzu eta prestazioen ohiko kudeaketarekin bat eginda, osasun krisi honetan ahulenak diren taldeei

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: “a) *Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.*”

**SEGUNDO.** – La presente reclamación se formula contra la resolución adoptada por el Director General de Promoción de la Autonomía Personal del Departamento de Acción Social el día 22 de enero de 2021 en la que se autorizaba a

a acceder a la información solicitada de acuerdo a lo previsto en la resolución 6/2020, de 25 de septiembre de esta Comisión en los siguientes términos:

*“La información cuyo acceso se autoriza se proporciona en el “Informe de análisis sobre lo sucedido en los centros de servicios sociales de carácter residencial durante la pandemia del COVID-19” anexo a esta resolución”.*

El informe en cuestión es un documento de treinta y dos páginas que según el reclamante no contiene la información solicitada.

**TERCERO.** – En el informe emitido por la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal el 8 de marzo de 2021 atendiendo a lo solicitado por esta Comisión, se detalla cómo dicha Dirección ha debido asumir gran parte de la gestión extraordinaria derivada de la pandemia, que ha venido a sumarse a la gestión ordinaria de servicios y prestaciones para personas en situación de dependencia y discapacidad, los colectivos más vulnerables en esta crisis



dagokienez.

sanitaria

Gaineratu du pandemiak egoitzetan duen eraginari buruzko datuak hainbat bidetatik jakinarazten zaizkiela herritarrei, Gizarte Gaietarako eta Agenda 2030erako Ministerioari, Bizkaiko Probintzia Fiskaltzari eta Batzar Nagusietako talde politikoei, eta horrek guztiak egoitza-zentroek egoitza elektronikoaren bidez bidalitako datuen eskaera bakoitza etengabe eta hitzez hitz ustiatzea eskatzen duela.

Añade que los datos sobre la incidencia de la pandemia en centros residenciales son comunicados por distintas vías a la ciudadanía, al Ministerio de Asuntos Sociales y Agenda 2030, a la Fiscalía Provincial de Bizkaia y a los grupos políticos en Juntas Generales, todo lo cual requiere la explotación continuada y ajustada al literal de cada petición de los datos remitidos por los centros residenciales a través de sede electrónica.

Amaitzeko, honako hau dio: '  
*jaunak jarritako bigarren erreklamazio horri erantzuteko, datuak tratatzeko eskaera egin da. Eraitzeko txostena interesdunaren eta Batzordearen esku jarriko da, txostena egin bezain laster*".

Y finaliza indicando: "*Para dar respuesta a esta segunda reclamación interpuesta por , se ha cursado la correspondiente petición de tratamiento de datos. El informe resultante será puesto a disposición del interesado y de la Comisión tan pronto esté elaborado*".

Hortik ondorioztatzen da zuzendaritza horrek onartzen duela emandako txostenak ez duela jasotzen jaunari Batzorde honen 6/2020 Ebazpenean adierazitako baldintzetan eman behar zitzaion informazioa.

De lo que se deduce que la citada Dirección asume que el informe facilitado no contenía la información que debía haber sido facilitada al en los términos indicados en la Resolución 6/2020 de esta Comisión.

Informazioa, azkenik, 2021eko apirilaren 29ko Ebazpenaren bidez eman da.

La información ha sido finalmente facilitada mediante la Resolución de 29 de abril de 2021.

**LAUGARRENA.**– Ezin da zuzentzat jo Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren jokabidea honako alderdi hauetan:

**CUARTO.** – No puede considerarse correcto el proceder de la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal en los siguientes extremos:

- 6/2020 ebazpena ez du betearazten interesdunak hala egiteko eskatzen ez dion arte.

- No ejecuta la resolución 6/2020 hasta que no es requerida a tal efecto por el interesado.

- Errekerimendu hori lehenengoaz aparteko erreklamazio gisa tratatzen du, eta beste ebazpen bi sortzen ditu, errekurtsio-orriarekin batera, eta beste erreklamazio bat dakar

- Trata dicho requerimiento como una reclamación independiente de la primera, generando dos nuevas resoluciones a las que incorpora el pie de recurso, dando lugar a



Batzorde honetan.

una nueva reclamación ante esta Comisión.

**BOSGARRENA.-** Batzordearen 6/2020 ebazpena betearazteari buruzkoa da eztabaidaren ardatza. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak berariaz adierazten ez badu ere, zalantzarik gabe Batzordearen ebazpenak, administrazio-bidea agortzen dutenak, betearazleak dira, baina Batzordeak ez du zehapenerako eskumenik ez-betetze kasuetan.

**QUINTO.** - El debate se centra en definitiva en torno a la ejecución de la resolución 6/2020 de esta Comisión. Aunque la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, no lo indica expresamente, es indudable que las resoluciones de la Comisión, que agotan la vía administrativa, tienen carácter ejecutivo, si bien la Comisión carece de competencias sancionadoras en los casos de incumplimiento.

Ez da aplikatzekoa V. tituluko II. kapituluko 37. artikuluan xedatutakoa, "Gardentasunaren bermeak. Zehapen-araubidea". Arau-hauste oso larritzat jotzen da soilik Batzordearen ebazpenak behin eta berriz ez betetzea, bi urtean hiru aldiz baino gehiagotan, eta arau-hauste larritzat, berriz, bi urtean bitan ez betetzea.

No resulta de aplicación lo dispuesto en el artículo 37 del capítulo II del Título V, "Garantías de la transparencia. Régimen Sancionador", que únicamente tipifica como infracción muy grave el incumplimiento reiterado, más de tres veces en dos años, de las resoluciones de la Comisión y como infracción grave el incumplimiento por dos veces en dos años.

Kasu honetan, Batzorde honen 6/2020 ebazpenaren ez-betetze partzial bakar baten aurrean gaude, eta Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak erabat bete dezala baino ezin zaio eskatu, hori baita, azken batean, jaunak 2020ko otsailaren 16ko bere idazkian eskatzen duena; ez-betetze hori zuzendu egin dela ulertzen da, hain zuzen ere 2021eko apirilaren 29ko Ebazpenarekin, eta errekurtsogilea, eman zaion alegazio-izapidean, ez da gure ebazpena betearaztearen aurka agertu.

En el presente caso nos encontrábamos ante un único incumplimiento parcial de la resolución 6/2020 de esta Comisión a la que solo cabría instar su pleno cumplimiento por parte de la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal, que es lo que en definitiva solicitaba el en su escrito de 16 de febrero de 2020; incumplimiento que se entiende subsanado con la Resolución de 29 de abril de 2021, sin que el recurrente en el trámite de alegaciones que se le ha conferido haya mostrado oposición a la ejecución de nuestra resolución.

**SEIGARRENA.-** Aurrekoa ikusita, bidezkoa da erreklamazioa artxibatzea.

**SEXTO-** A la vista de lo anterior procedería el archivo de la reclamación.

Horregatik guztiagatik, gardentasunaren arloko erreklamazio batzorde honek honako hau erabaki du:

Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda:



## EBAZPENA

## RESOLUCIÓN

**Lehena.**– jaunak 2021eko otsailaren 26an aurkeztutako erreklamazioa artxibatzea.

**Primero.** –Archivar la reclamación presentada por el 26 de febrero de 2021.

**Bigarrena.** Ebazpen hau errekurtsogileari eta Gizarte Ekintza Saileko Pertsonen Autonomia Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea. Halaber, Ahdun Nagusiaren Laguntza Unitateko Estrategia Digital eta Korporatiboko Kabineteko Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

**Segundo.** - Notificar esta resolución al solicitante y a la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal del Departamento de Acción Social. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa de la Unidad de Apoyo del Diputado General..